

BERRIGARA

2. zenbakia

JARDUN Elkarte, Bergara

1994, abenduak 16




Ikusi arte!!

Elkartasuneko txakur lerak abiadan

BEHERAPENAK!!


Burberrys
OF LONDON

BEHERAPENAK!!



egizabal



Dr MARTENS

LEVI'S 501 XX USA

PEYTON

PANAMA JACK

ESKULANAK ETA ARTE EDERRAK

* Ikastaroak.

(Eskulanak, larrua, marrazkiak, oleo margoak, enkuadernazioa, e.a...)

* Material Salmenta.

(Pintzelak, akrilikoak, oleoak, e.a...)

* Dekorazio Elementuak.

(Zutabeak, bustoak, irudiak, lamparak, e.a...)

* Zaharberritzea.

(Kadroak, moldurak, liburuak, e.a...)

* Enkuadernazioa.


* Enmarkazioa.



* Plumilla eta serigrafien salmenta.


* Enkarguzko lanak egiten ditugu.

Artekale 15 20570 BERGARA-GIPUZKOA



TEL. 943 76 57 13
FAXA. 943 76 57 13

GIMNASIOA



B • O • L • U

Aranerrika, 9 behea ☎ 76 51 20

Abendu eta urtarrilean zehar...

MATRIKULA DOHAINIK!!

Eta bi pertsonarentzako

ASTEBETEKO EGONALDIA

KANARIETAN

bost izarretako hotelean!!

**GABONAK ZORIONTZEAZ GAIN,
OLENTZEROREN OPARIAK AURRERATU EGITEN DITUGU.**

ERROTALDE JAUREGIA
20570 Bergara
Tfnoa eta Faxa: 76 03 97

Argitaratzailea:

JARDUN Elkarte.
Masterreka, 13 Bergara.
Tfnoa eta Faxa: 76 08 19

Zuzendaria:

Gorka Elorza
Erredakzioa:
Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil
Mikel Elkoroberezar

Maketazioa:

Eneko Azkarate
Eduardo Mendibil

Publizitatea:

Alex Azkarate

Harpidetzak:

Gorka Elorza

Testuen zuzenketak:

Estepan Plazaola
Mariji Laskurain
Alex Labaien

Erredakzio kontseilua:

Miguel Angel Elkoroberezar
Estepan Plazaola
Alex Labaien
Iñaki Eraña

Komikiak:

Bittor Rodriguez
Gorka Ortega & Jon Alvarez
Jose Martin Ezenarro
Julian Ezenarro
Alex Ugalde
Unai Azkarate

Banaketa:

Txanbaxgorri taldea

Tirada:

3.700 ale.

Inprimategia:

Gertu Koop. Elk. (Zubillaga. Oñati)

Copyright:

BERRIGARA

Lege gordailua:

SS 50/91

ISSN:

1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Aldizkari honek Bergarako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jauriritzaren Kultura sailaren laguntza jaso du


Z E R B E R I D A ?

LARRAITZ MADINABEITIA *Jarduneko Gazte Taldeko Partaideia*

- Zelan dihoa euskal abizenak euskal grafiara aldatzeko kanpainna?

- Ondo, orain arte 84 pertsona etorri dira instantziak betetzera eta kopuru dexentea dela pentsatzen dugu. Halere, ematen ditugun erreztasunak kontutan izanda, oraindik jende gehiago etortzea espero dugu. 7 lagun ari gara honetan lanean eta interesatuek JARDUNera etor daitezke urtarrilaren 31ra bitartean, astelehenetik ostegunera, 6.30etatik 7.30etara. Karnetaren kopia ekarri eta instantzia bat besterik ez da bete behar. Beste guztia gure kontu gertzen da.

- Eta noizko espero



duzue aldaketa egina izatea?

- Bueno, taldeka bialduko ditugu eta apiril alderako lehen emaitzak izatea espero dugu. Eta horrela eginda askoz errezagoa da. Norberak bere kontu egin ezkeroko papeleo gehiegi egin behar du eta guk kontu horiek erreztu nahi ditugu.

"Norberak bere kontu egin ezkeroko papeleo gehiegi egin behar du"

I T U R R I O N E T I K

Udal Liburutegia Irizar Etxera pasatzeko asmoa du Udalak

Udal Liburutegia Irizar Etxera pasatzea aztertzen ari da Udala. Orain Kultur Etxean dagoen liburutegia txikia geratu omen da eta, dagoeneko, Jauriritzako liburutegien arduraduna Irizar Etxea ikusten egon da eta hemendik gutxira txosten bat aurkeztuko du horren inguruan. Behin Udaletxea inauguratuz gero, Udalak proiektu bat egingo du. Bertan, liburutegiaren kokapen berria izango den Irizar Etxean egin beharreko hobekuntzak aztertuko dira. Liburutegia Irizar Etxera pasatzekotan, EPA-HHIko zentruak ez luke Irizar Etxean jarraituko. Kultur Etxean ere hainbat aldaketa egingo liriteke.

E S A N D U T E

"Luze hitz egin da HIESari buruz, baina hitzaldiren batean, elkarrizketa edo artikuloren batean neure bizitza eta sentimenduak jendearekin konpartitu eta ahal dudan guztia esan ondoren, hutsunea geratzen da, ondorioen zalantza. (...) Ahal dudan guztia saiatuko naiz HIESa beste gaisotasun bat gehiago izan dadin, berdintasunean oinarritutako harremanak lortzen, inork lastima edo penarik senti ez dezan eta HIESdunekin bizi izaten ikas dezagun"

LIERNI IRIZAR Seropositiboa EGIN

"Gaur egun dagoen konpetentziarekin imajinario handia behar da eroslearengana hurbiltzeko eta ondo saltzeko. Eta erosleak ere eskertzen du gertutasun hori. Ondo ikusten dugu baimenak behar izatea baina hori ez dadila arrisku bihurtu; erreztasunak eman behar dira"

MAITE ARISTEGI EHNEko partaideia EUSKADI IRRATIA

**ASESINOS NATOS**

Larunbata: 22.30.

Igandea: 17.00, 19.30, 22.15.

Astelehena: 19.30 (Ikuslearen eguna).

**MENTIRAS
ARRIESGADAS**

Larunbata: 17.00, 19.30.

Igandea: 11.30.

**AMO LOS UNIFORMES**

Osteguna: 20.00.

Zinea▼▼ **Oliver Stone**

zuzendariak (*Platoon, JFK*) arrakasta eta polemika lortu du bere azken filmearekin. Telebistako *reality-show*ak kritikatu nahirik, badirudi eskua joan zaiola oraingoan zinegile iparamerikarrari, *road-movie* hau historiako biolentoenarikoa omen baita. **Woody Harrelson** (*Cheers*) eta **Juliette Lewis** (*El cabo del miedo*) bikote protagonistak ez du inoren gupidarik azalduko.

▼▼ Egundoko efektu bereziak historiako filmerik garestiengan. *Terminatoren* arrakastaren ondoren, berriz ere **James Cameron** zuzendaria eta **Arnold Schwarzenegger** aktorea elkartu dira. **Jamie Lee Curtis**, ustekabez, bere gizonaren abenturatan murgilduko da umorea eta espioitza nahasten duen filme honetan.

▼▼ *Henry Adler* (**Tom Mc Camus**) aktore izan nahi duen banketxe bateko langilea dugu. Telebista serie batetan polizia baten patera lortzen duenean, bere lana obsesio gertatzeraino iritsiko da, kaletik poliziaz jantzita ibiliz. Bere bizitza erabat aldatuko da hortik aurrera... Filme kanadiar hau iazko Canneseko Jaialdian aurkeztu zen.

Deiak

▼ **JARDUN**ek antolatuta, haurrentzako "*Asterixen 12 probak*" filmea larunbatean 11etan Kultur Etxean. Sarrera 50 pezeta.

▼ **Abdon Juaristiren** margo erakusketa Bilboko Caledonia Arte Galerian (Ercilla, 11) abenduaren 29ra arte.

▼ **Abiadura** Haundiko Trenaren Aurkako Asanbladak deituta, AHTren kontrako kontzentrazioa bihar larunbata eguerdiko ordubatean Gasteizeko Amabirjina Zuria-Plazan.

▼ **Sofia Gimber** neskatilaren margoak Nahikari tabernan.

Ogia▼ **Igandea 18:** Mizpildi.**GOARDIAKO
FARMAZIAK**

- ▼ **Ostirala 16:** Mozos/Morales.
- ▼ **Larunbata 17:** Camacho/Azkoa.
- ▼ **Igandea 18:** Camacho/Español.
- ▼ **Astelehena 19:** Puy/Corcuera.
- ▼ **Asteartea 20:** Guallar/Irizar.
- ▼ **Asteazkena 21:** Estella/Amezua.
- ▼ **Osteguna 22:** Mozos/Ruiz.

Zure
konfidantzako
denda



Tfnokak: 79 13 55 - 79 27 27

ARRASATE

BERLIOZEN Te Deum

Larunbatean eskainiko dute San Pedron, Bergarako Orfeoia, Arrasateko Goikobaluk, Eskoriatzako Gorosarrik eta Zumarragako Goiargik, Hendaiako Orkestarekin batera

Hector Berliozen "Te Deum" a eskeiniko dute bihar larunbata Hendaiako Orkestak, Arrasateko Goikobalu abesbatzak, Eskoriatzako Gorosarrik, Zumarragako Goiargik eta Bergarako Orfeoia gaueko 10.30etan San Pedro Parrokian. Hendaiako Orkestako zuzendari den Rene Zugarramurdiren batutapean, 225 kantari eta 120 musiko arituko dira, tartean Bergarako Orfeoiko 80 partaideak.

David Azurza Orfeoiko zuzendariaren hitzetan, "lan hau Berliozen frantziarrak XIX. mendean idatzi zuen Napoleonek inpresionatzeko, omenaldi bat bezala. Izpiritu erromantikoko lan benetan haundia da, 200 bat abeslarirentzat idatzi baitzuen eta, "Requiem" arekin batera, Berliozen lanik ezagune-



Argazkian, Rene Zugarramurdi, orain dela gutxi egindako entsaiu batean.

na da. Musika sakroa da, organo batez lagunduta kantatzekoa eta lan erlijiosotzat jotzen da. Bestalde, ez dut uste Euskal Herrian inoiz interpretatu denik, beraz larunbateko emanaldia

estreinaldia izango da".

Musikak ala ahotsek garrantzi gehiago daukaten galdetzean, zera erantzun digu Azurzak: "lan korala da batipat eta testuak, latinez, garrantzi haundia dauka.

Himno glorioso eta inpresionantea da benetan baina orkestak ere garrantzi haundia dauka. Metal asko duen lan bat da eta askotan orkestra baina banda bat ematen du".

Orfeoia eta gainontzeko taldeek urtebete daramate lan hau prestatzen. Azurzak aipatzen duen moduan, "lan oso gogorra izan da, esfortzu haundia izan da baina merezi izan du, gustora egin dugu lan". Larunbateko kontzertuan Zugarramurdiren "Aiten gogoaz" eskeiniko da lehenbizi eta jarraian 6 zatitan bananduta dagoen "Te Deum": "Te Deum", "Tibi omnes", "Dignare", "Criste, rex gloriae", "Te ergo quasumus" eta "Judex crederis".

Gogoratu, sarrerak 1.000 pezetatan jarriko direla salgai.

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta, 29
☎ 76 22 90 - 76 26 75

iletxo
ileapaindegi mistoa
BEGOÑA ARZELUS
Fleming Doktorea, 7 BERGARA
☎ 76 53 15

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura
Zubieta, 46 BERGARA
☎ 76 12 31

BALDANA
ALBAITARITZA KLINIKA
TXAKURREI IDENTIFIKAZIORAKO MIKROTXIPAK
JARTZEKO KANPAINA. ABENDUAREN 31^{ra} ARTE.
OHARRA: DERRIGORREZKOA DA MIKROTXIP
HAUEK JARTZEA.
Koldo Eleizalde, 28 ☎ 76 27 97 / 90 81 09 30

JESUS J. GIRALDO ARGÜELLO
LISERIKETA APARATUA
X izpiak, endoskopiak eta terapeutika endoskopikoa.
LAGUN-ARO, Foru Diputazioa, Prebisa eta partikularak.
Loramendi, 6 Torre Eguzki 2.B ARRASATE

**Maltzaga?, Urbina?,
Foronda?, Langraitz?,
Margarita?**

Garbi dagoen bakarria Maltzagan hasi edo bukatuko dela, eta Debasa elkarteak dioenez autopista bat izango dela.

Dagoeneko behin baino gehiagotan esan dugu Interbentzio Gune Partehartzailleetan oniritzi sozial txikiena jaso zuen alternatiba bultzazen ari direla Debasakoak. IGPetan azaldu zenaren arabera, autopistaren aldekoak %15a besterik ez dira, aldiz, herritarren %80ak egungo errepidea hobetzea nahi du.

Prozesu hau martxan jarri zenetik hamaika azpi joko eta gaizki eginiko gauzekin topo egin dugu. Guztiok Maltzaga-Urbina ardatzaren inguruan eztabaidatzen geunden bitartean zenbaitzuk beste lotugune batzuk "proposatzen" zituzten. Lehena Alberto Ansola izan zen (EAJ alderdiko ele-duna; Arabako Diputatu Nagusia), "autopista Forondaraino eramane behar da"; ondoren PP eta UAKoek Armiñongo lotura historikoa bultzatu zuten. Azkenik eta denbora gutxitik hona beste hiru lotugune azaldu dira: Langraitz, Margarita eta Etxabari Viña. Azkenean, eta Debasak publikoa egin duenez, autopista Etxabari Viñaraino luzatuko da. Honela ardatz berri baten aurrean aurkitzen gara: Urbina-Etxabari Viña ardatza hain zuzen.

Izugarria! Baina nola jolastu dezakete herritar zintzoekin honela? Gezurretan ibili dira, datoak izkutatu dituzte, sasi eztabaida herritar bat jarri zuten martxan azkenean eurek nahi zuten guztia egiteko. Non gelditzen da politiko hauen etika eta morala?

Autopistaren "helmuga" ezagutzeko aukera izan dugun aste berdinean, Bruselastik heldu den berri bat ezagutu dugu ere:

"Europako Batzordeak ez du nahi Estatu Espainiarrak proposazten dituen azpiegitura obra

guztiak finantziaztea". Batzordearen asmoa %25arekin laguntzea da. Aldiz Estatu Espainiarrak %50a nahi du.

Etxabari Viña Forondako aireportutik gertu dagoen herria da. Altubeko autobidearen ertzean kokatua, beraz A68 autopistatik gertu. Gogoratu Urbina-Gasteiz-Foronda-Altube gaur egun autobide bitartez lotua dagoela. (Gainera Altube-Bilbo autopistaz lotuta dago). Beraz zenbat denbora aurreratuko dugu zati berri honekin? (Urbina-Etxabari Viña). Zentzurik gabeko luzapena.

Gogoratu U.A.G.A, nekazari eta abeltzaintza sindikatu arabarra, luzapen honen aurka dagoela, lur emankorrenak txikituko bait lituzke.

Eta dirua, zer? Maltzaga eta Urbina zatiari, 80.000 miloiko aurrekontuari, azken zati honen gastoko gehitu behar zaio, 20.000 miloi. Beraz, orotara 100.000 miloiko aurrekontuari egin behar diote aurre, Europako diru laguntzaren murrizketa posibleari egin behar dioten bezela.

EGUZKI

Euskara kontuak

Gaur egun kalean dagoen arazo bat euskara finkatu eta bultzatzearena da eta badirudi euskararen helburuak azpimarratu beharrean, euskararen inguruko konpetentziak geroz eta garrantzi handiagoa dela batzuentzat.

Itxuraz denok tren berean igota gaude, teoriokoki, baina errealitatean ez da hori gertatzen. Nik uste, edonork edonon euskara ikasteko eskubidea daukala baina normalean euskaltegi libreen subentzio faltak direla eta ez da horrela gertatzen, askotan ikasleak mugatuta sentitzen dira zentroak aukeratzeko orduan.

Ez nuke jakingo diskriminazioa den edo beraiek dioten bezala, konpetentziari ezin zaiola lagundu esatean zein zentzurrekin dioten, euskera eta euskeraren arteko konpetentzia, noruk uler de-

zake hori? Euskera zabaltzea eta finkatzea dute helburutzat edo euskera negozio hutsa bilakatu nahi dute? Guztion helburua, edonork euskera dohain ikasteko eskubidea lortzea izan behariko litzateke eta aldi berean gazteleraren nagusitasuna murriztea, bigarren mailako helbururik gabe. Euskera kalean, etxean, edonon zailtasun gabe eta etenik gabe entzutea izugarria izango litzateke, aspaldian normalizat jo behar genuen zerbitzu izan arren.

A.A.

N.A.N. 15.393.351

Eskerrik asko guztioi

Aurreko hilaren 8an Bergaran jokatu zen Gabonetako Gimnasia Erritmikako saria dela eta, Ariznoa Gimnasia Erritmika Taldeak eskerrak eman nahi dizkie kolaboratu zuten ondoko etxe guztiei: Lilura, Zubikua, Gisasola burdinakidenda, Kutxa, i2 Kirolak, Garaje Berria, Gaztelu burdinakidenda, Araneta, Tritor, Ileapain, Kabutzia, Avenida eta Winterthur aseguru etxeari. Eskerrik asko guztioi zuen laguntzagatik.

**ARIZNOA GIMNASIA
ERRITMIKO TALDEA**

Zuzenketa

Anton Blanco da Bergarako Opel-Ola konzesionarioko jereatea eta ez Anton Barrutia, aurreko zenbakian jarri genuen moduan.

Tiira biraka

GIZON HONI GOSARIAK
BERBA EGITEN DIO



ALEX UGALDE

PUTA SEMEA,
USTEL HADI.
HIREAK EGIN DU!!



◆ Txakurren identifikazioa

Udalak jakitera eman duenez, 1995eko urriaren 1etik aurrera beharrezkoa izango da txakurren identifikazioa. Laguntzarako Animalien Alkartearien Gipuzkoako Elkartearen bitartez egin beharko da, eurak baitira sanitate kartilak dituzten bakarrak eta beraiek emandako datuak bakarrik sartu daitezkeelako Gipuzkoako Foru Aldundiko txakurren erregistro orokorrean.

◆ Xamatzen X. urteurrena

Xamatz dantzataldearen X. urteurrena dela eta, bertako partaide izan diren guztiei dei egiten zaie bihar larunbata, abenduak 17, 4retan Xamatzeko lokalean egingo den bileran parte hartzeko. Bilerara joaterik ez dutenek 76 40 70 (Ibon) telefonora dei dezakete.

JAIOTAKOAK

Peio Otaño Basterra

Azaroak 29

Kattalin Mujika Posada

Azaroak 30

Mikel Umerez Caamaño

Abenduak 1

Leire Igarza Gainza

Abenduak 2

Nerea Agirrezabal Urrutia

Abenduak 9

Izaskun Arriola Gutiérrez

Abenduak 12

HILDAKOAK

Luis Gantxegi

Abenduak 2, 92 urte

Juan Agiriano Kortazar

Abenduak 4, 62 urte

Luis Ibarra Pildain

Abenduak 6, 77 urte

"El borracho burlado" antzeztuko du gaur Agerre Teatro taldeak

Udazken Kulturalako programaren barruan, antzerkiaren txanda izango da gaur ostirala gaueko 10.30etan Novedadesen. Agerre Teatro taldeak Peñafloidaren "El borracho burlado" lana eskeiniko du. Agerre taldeak orain urtebete berreskuratu zuen XVIII. mendeko opereta hau eta aurreko abenduan Donostiako *Lugaritz* Kultur Etxean estreinua egin zutenetik 10 bat emanaldi eskeini dituzte Euskal Herrian zehar. Talde honek egin dituen lanen artean, "Pantzar" pastoralara (1991) eta "Molly Bloom" (Joyce, 1992) aipatu daitezke.

Maite Agirre dugu taldearen zuzendaria hasieratik eta azken lan honetako 10 partaideen artean David Azurza Bergarako Orfeoiko zuzendari tolosarra dago. El borracho burlado definitzerakoan, zera aipatu digu: *"musika popularra da eta gai klasikoak eta antzespena gaurkotu egin ditugu. Komedia bat da eta oso errez eta gustora ikusten da. Aintzinako gaztelean berba egiten da eta abestiak, berriz, euskaraz. Peñafloidak idatzi zuen modu berean antzeztuko dugu"*.

Musika anonimoa


Bestalde, Davidek argitzen digun moduan, musika ez da Peñafloidaren orijinala: *"anonimoa da. Bergararren batek idatziko zuen, paperak Bergaran aurkitu baitziren, baina ez*



da egilearen izenik ezagutzen".

Txanton (Azurza bera) dugu protagonista. Edatea gehiegi gustatzen omen zaio eta Maritxu bere emazteak engainu bat prestatuko du Txantonek edaria laga dezan. Horrela, Txanton markes

bihurtuta esnatuko da egun batetik bestera eta engainu honek beste zenbait engainu ekarriko ditu atzetik, azkenean gutzia erabat aldrebestuta azalduko zaigularik. Gaur gauerako sarrerak 700 pezetatan salduko dira Novedadesen.



Bergaran estreinatu zen

Francisco Javier Maria de Munibe Peñafloidako Kontearen (1723-1785) "El borracho burlado" opera komikoa 1764ko San Martinen omenezko jaietan

estreinatu zen Bergarako Udaletxeko Pleno aretoan. Orduan, Kontearekin entsaiutan ibilitako hainbat abeslari afizionatuk eskeini zuten lana. Esan behar da Peñafloidaren asmoa lan gutzia euskaraz idaztea izan zela baina ez omen zuen argi izan zein euskalki erabili. Horrela, abestutako zatiak euskaraz eta gainontzekoa gaztelez idaztea erabaki zuen. Erabiltzen den hizkuntza popularra, bizia eta barregarria omen da eta, beraz, gaur barre egiteko aukera izango dugu Peñafloidak asmatutako Txanton Garrote, Maritxu, Martiniko edota Don Diego Mayordomo de un Caballero pertsonaiekin.

◆ Elkarbizitza

ihardunaldiak Gabonetan

Gipuzkoako Foru Aldundiak "Gabonetarako Elkarbizitza Ihardunaldiak" antolatu ditu 65 urtetik gorako pertsonak ez daitezen Gabonetan bakarrik egon. Betebeharreko baldintzak honako hauek dira: gipuzkoarra izatea, bakarrik bizitzea eta zaharren egoitza batean ez bizitzea. Irteera hilaren 23an arratsaldean izango da eta itzulera hilaren 25ean arratsaldean. Kostua 3.000 pezetakoa da eta eskaerak hilaren 20a baino lehen egin behar dira 900.43.43 telefonora deituz.

◆ Zeinu hizkuntza

ikastaroa

Arans-Guiko Guraso Eskolak Zeinu hizkuntza lantzen hasteko ikastaro bat antolatu du gorrekin komunikazio ahalmenak hobetu nahi dituztenentzat. Ikastaroa Bergarako Arans-Gui eskolan urtarrilaren 10ean hasiko da eta klaseak asteartetan emango dira 18.30etatik 20.30etara. Izen-ematea 5.000 pezeta izango da. Argibideak 76 27 03 telefonoan.

◆ Idolazep kanpaina

Idolaz Antzuolako euskarataldeak, Kutxa eta Euskadiko Kutxarekin batera, "Interesik haundiena, euskararena" kanpaina jarri du martxan. Hiru helburu bete nahi dira: txekeak euskaraz betetzeko jendea motibatzea, tarjetak euskaraz erabiltzeko kajoroan egin behar den eragiketaren berri eman eta aurrezki kutxetatik etxera heltzen diren agiriak euskara hutsez heltzeko bideak jartzea.



Elkartasunaren ibilaldiko partaideak. Erdian, Axen Garitano bergararra.

Ikusmin haundia Ruandaren aldeko itzuliko irteeran

Txakur leren ibilaldia igandean abiatu zen Bergaratik

Jendetza haundia bildu zen igande goizean Plazan eta herriko kaleetan, Ruandaren alde lau lagunek txakurrez tiraturiko lerekin (hiru erroberako bizikleta edo trizikloekin) egingo duten Euskadiko Itzuliko irteeran.

Julio eta Eneko Eizagirre Lizartzako anaiak, Patxi Maestro errenteriarra, Arturo Fernández pasaitarra eta Axen Garitano bergararrak 1.000 kilometro egiteko asmoa dute hemendik urtarrilaren 11ra bitartean, guztira 45 bat hiri eta herri bisitatuko dituztelarik.

Victoriano Gallastegi alkateak eman zuen igandean irteera eta partaideek Arrasate eta Elorriorako bidea hartu zuten. Asteazkenean Deriora iritsi ziren, ostegunean, berriz, Bilbora eta Bizkaiako hiri-

burutik, Orduña zeharkatuz, Gasteizera bidea hartuko dute.

Bost partaideak txandakatu joango dira ibilbidean zehar; beraien batera ordezkotxakurrak (22 erabiliko dituzte) eramateko eta ordezkotxi partaideak joateko ibilgailu eta Ertzaintzako hiru motorista abiatu ziren. Partaideek txakurrendako janaria eramango dute bakarrik. Beren janaria eta lo egiteko tokia, berriz, bisitatuko dituzten herrien menpe uzten dute. Udal ezberdinek proiektu honetan kolaboratzeko asmoa azaldu dute. Bergarako alkateak, berriz, urtarrilaren 11n, udal guztietako ordezkariak Bergarara etortzeko gonbidapena luzatu die, "abentura honi behar den amaiera zoriontsua eman abal izateko".



zumelaga
JATETXEA

IGANDETAN ZABALIK!!

San Antonio, 5
BERGARA
☎ 76 20 21

ETXAGI

JATETXEA

AFARIAK, BATAIOAK,
JAUNARTZEAK, EGUNEROKO
MENUA, GOSARIAK,
BAZKARIAK...

Masterreka, 8 ☎ 76 53 12

Seminarioko ikerketei buruzko liburua aurkeztuko da gaur

XVIII.ean egin ziren kimika eta minerologia lanei buruzkoa

Gaur arratsaldeko 7etan aurkeztuko da Kultur Etxean Ramón Gago eta Inés Pellónek idatzitako "Historia de las Cátedras de Química y Mineralogía de Bergara a finales del siglo XVIII" liburua. Erret Mintegiaren Historiaren aspektu ezberdinei buruz artikulua ugari idatzi baldin bada, gutxi dira gaia bere osotasunean aztertzen duten liburuak. Horien artean aipamen berezia merezi dute Koldo Larrañagaren "Las manifestaciones del hecho Ilustrado en Bergara" (1991) edota 1953an kaleratu eta 1992an

berrinprimatu zen Leandro Silvánen "Los estudios científicos en Vergara a fines del siglo XVIII".

Gaurko aurkezpen ekitaldian Victoriano Gallastegi alkatea, Garbiñe Egibar Diptuzioko Kultura zuzendaria, Jose Maria Urkia Euskal Herriko Adiskideen Elkartearen izenean, Leandro Silván Seminarioko Historia Zientifikoan aditua edota Ramón Gago eta Inés Pellón liburuaren egileak izango dira. Liburuaren 1.500 ale argitaratu dira eta liburua 600 pezetatan jarriko da salgai.



◆ Jubilatuetako ekintzak

Asteartean, hilak 20, Luis Ecenarro Gaspareko sukaldariak "Gabonetako menuak" izenburuko hitzaldia emango du 17.30etan Jubilatuetan.

Asteazkenean, Santo Tomas eguna ospatzeko, arratsaldeko 5etan txistorrada izango da eta ondoren Iñaki Quintanillarekin dantzaldia. Ostiralean, berriz, eguerdiko 12etan Jubilatuen Abesbatzak lagundutako meza eta jarraian Gabonetako kontzertua.

◆ Kapirixoren irteera

Kapirixoa taldeak dei egiten die interesatu guztiei igandean, hilak 18, egingo den irteeran parte hartzeko. Irteera goizeko 9etan Angiozarreko Plazatik egingo da eta, Angiozarreko San Migel Goiangeruaren Parrokia, Marindao auzoko Elizamendi, Elgetako Asensiomendi eta Partaittik San Bizente bisitatuko dira.

◆ Gabonetako kontzertua

Datorren ostiralean, hilak 23, 10.30etan San Pedron izango den Gabonetarako kontzerturako sarrerak Musika Eskolan, Lazkano oinetako dendan eta Ariznoa tabernan jarriko dira salgai 700 pezetatan. Ostiralean bertan Plazan salduko dira 7etatik aurrera.

SONY	<h1>telkar</h1>	AEG
JVC		FAGOR
AIWA		OTSEIN
PHILIPS		BALAY
GRUNDIG		ZANUSSI
PANASONIC		SIEMENS

Eska ezazu gure aldirakia, gabonetako eskaintzak aurkituko dituzu bertan.
Ettxera eramango zaitugu.
☎ 76 27 11

LAZKANO

Oinetakoak

Barrenkale, 15
☎ 76 25 03

Kizkur

ILEAPAINDEGIA SOLARIUMA


Bolu, 51 Tfnoa: 76 50 32

LONBIDE

OINETAKOAK



Bidekurutzeta, 5 ☎ 76 10 57 **BERGARA**



EGIZU KEINU NATURALA

Ez zaizu ezer kostatzen



Izugarri balio du



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MANCOMUNIDAD DEL ALTO DEBA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Obra Hidrauliko eta Ingurugiro Departamentua
Departamento de Obras Hidráulicas y Medio Ambiente

Elementalak 50 urte betetzen ditu ikasturte honetan

Era askotako ekitaldiak antolatu dira hurrengo hilabeteetarako

Ostegunean

aurkeztu zuten Migel Altuna institutuan 50. urteurrena ospatzeko ekitaldiak. Aurkezpenean Jose Mari Larrañaga, eskolako zuzendaria, Migel Altuna, eskolaren sortzaileetarikoa bat, Victoriano Gallastegi, Bergarako alkatea eta David Urzainki, Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketaren Zuzendaria izan ziren hizlari. Hasiera batean Eli Galdos Gipuzkoako Diputatu Nagusia etortzekoa zen arren,

ezin izan zuen etorri.

Gonbidatuen artean eskolak izan dituen zuzendariak, lehen bost urtetan izandako ikasleak eta herriko aurpegi ezagunak ikus zitezkeen. Hurrengo hilabeteetarako ekintza ezberdinak antolatu dituzte Elementaleko kideek. Horien artean hitzaldiak, jai egunak eta eskola ezagutarazteko jardunaldiak iragarri dituzte. Maiatzeko eskola berria inauguratzeko asmo dute, baina klaseak ematen datorren

Herrian errotuta

Hain herrikoa den Bergarako Lanbide Eskolaren urrezko ezteiak ospatzeak eskerroneko gogoetak egitera bultzatzen gaitu. Jakin dudanez, Bergarako Lanbide eskolaren hastapenak, hogeiko hamarkadan izan ziren dominikoen etxean; entzuna dudanez, Estatu Espainolean martxan jarritako hirugarrena izan zen, Bartzelona eta Eibarkoaren ondoren. 1944ean eraiki zen gaur egun ezagutzen dugun edifizioa, alderik zaharrena behintzat. Berrogei eta berrogeita hamarreko hamarkada gogor haietan maisu haundiek utzi zuten beren ilusioaren testigantza, Jose Maria Agirre, Migel Altuna, Fernando Azkargorta, Jorge Artetxe, Gilberto, Txomin eta Emilio Amasorrain, Marcelino Akizu, Tomas Barrena, Manolo Elkoro eta beste hainbeste ere gogoz saiatu baitziren eskolan eta mekanika, marrazkigintza, elektrizitatea eta kultura humanistikoaren irakaskuntzan. Berrogeita

hamar urte hauetan ehundaka ikasle (bergarakoak eta ingurukoak) pasatu dira Eskola honetatik, kalean "Elementala" izenez ezagutzen den honetatik. Nere ustez, hitz gutxitan Eskola honen bilakaera agertzekotan, bailarako bizitza laboral, sozial eta kulturean errotuta egoteko izan duen gaitasuna zuzendaritzaren arduradunei esker - gehienak bergararrak - eskola honek harreman sendoak izan ditu, eta ditu, bertako familiekin eta tailer eta lantegiekin. Gaur egun "Migel Altuna Institutua" deitutako eskola honen urrezko ezteiak ospatzeak etorkizunari esperantzaz begiratzen eta gaur eguneko sistema sozio-ekonomikoak ezartzen dituen baldintzengandik zailtasunak jasaten ari den gazte jendearekin konprometitzera bultzatzen gaitu, gure herria izango denaren hazia baitira.

PAKO ETXEBESTE



Jose Mari Larrañaga, Miguel Altuna, Victoriano Gallastegi eta David Urzainki, osteguneko ekitaldian.

MEKOLALDE TABERNA

Jai zorionsuak opa nahi dizkizuegu

ABENDUAREN 25ean ETA URTARRILAREN 1ean ITXI EGINGO DUGU. BARKATU ERAGOZPENAK.

Mekolalde z/g ☎ 76 50 18

Kirola egiteko behar den guiztia

BOLINTXO

Ibargarai, 10
☎ 76 38 32

HALTZARI


FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Bolu, 24 behea

Tfnoa eta faxa: (943) 76 30 57

BERGARA

(Gipuzkoa)



6 URTEKO
GARANTIA

FAGOR

Sukaldeko altzariak

Sukalde zoragarriak!!

PROIEKTUAK ETA AURREKONTUAK, KONPROMEZURIK GABE

Abenduaren 25era arte OPARI BIKAINAK!!

- **FAGOR garbigailua erostean, albornoz bat inzialak grabatuta**
- **FAGOR ontzigarbigailua erostean, kafetera eder bat**

Justizia

Gartzelari alternatibak

- Zergatik alternatiba behar hori?

- Gartzela XVIII. mende bukaerako sorkuntza zeharo progresista izan zen. Filadelfian cuaqueroek heriotza zigorraren orde zamatutakoa. Orain XX. mende bukaeran neurri hobegorik badagoela badakigu; askatasuna kentzen ez duten neurriak.

Gainera, Zuzenbide Penalaren helburua ez da kaltea ordaintzea, zigorra ezartzea baino eta honek ez gaitu Normalkuntza prozesu batetara eramaten.

Zer lortzen dut nik, adibidez, dendako eskaparatea puskatu eta egilea gartzelara sartzen badute? Seguruenik, kaltea nik ordainduko dut eta kitto. Hori al da arazoa konpontzea? Hobe biktima indemnitzatzea, delitu-egilea marjinatu baino.


- Zeintzu dira neurriok?

- MEDIAZIOA edo konziliazioaren bidez, biktima eta delitu-egilearen arteko akordioa; "PROBATION" a, hau da, proban jarri zerbitzu sozialen kontrolpean eta laguntzaz; KOMUNITATEAREN ALDEKO LANA (zigorra lan eginez

ordaintzea); toxikomanoentzat TRATAMENDU TERAPEUTIKOA; gartzela zigorraren SUSPENSIOA (batez ere haurdunentzat); ASTEBUKAERAKO ARRESTUA, "DIAS-MULTA"..., e.a.

Azken batean, helburu nagusia jendea kartzelatan ez egotea litzateke. Neurri guzti horiek probatu eta ez dituztenak bete egon beharko lirateke kartzelan. Zeren eta kriminalitateari

"Asmoa zera da: hobe biktima indemnitzatzea, delitu-egilea marjinatu baino"



Helburu nagusia jendea kartzelatan ez egotea litzateke.



AINHOA ALTUNA
(kriminologoa)

eman beharreko erantzuna ez da beti berdina izan behar, lekuan lekuko.

- Halere, badirudi Estatu mailan neurri batzuk hasiak direla aplikatzen.

- Bai, biktimenganako arduraren Valentziak eman zuen lehen pausua, be-

raien laguntza eta aholkularitzarako bulego bat zabalduz 83an. Gero, herrialde katalan guztietara hedatu zen eta, azkenik, Euskal Herriak jarraitu du. Bilbo-koak pare bat urte dauzka eta Donostian sortu berria da. Gasteizen datorren urtean irekiko da.

Indemnitzazioari dagokionez, oraindik ekin-tza terroristen kaltetunentzat dago bakarrik. Bestalde, biktima eta delitu egilearen arteko konziliazioa experimental da oraindik Estatuan. 500en bat kasu eman dira arrakasta haundiz.

- Baina neurri berri hauek martxan jartzea, garestia izango da, ezta?

- Oker zaudete. Efikazagoa izateaz gainera, merkeagoa ere bada. Ematen ditudan datuekin garbi ikus daiteke: Pariseko tribunal batek 1987an 2000 zigor "komunitatearen aldekoak" erabaki zituen. Hiru hilabetekoak, batzaz beste. Estatuari 4 milioi franko kostatu zitzaizkion.

Aldiz, 3 hilabeteko gartzela zigor motzak 54 milioi frankotako gastua dauka (2000 preso, 300 fr/eguneko, 90 egunetan). Ikusten denez, aldea haundia da. Pentsa 50 milioiko alde horrekin biktimak indemnitzatu daitezkeela eta zerbitzu sozialak eratu. Beraz, immobilismo kontua da, aldatzea da nekeza benetan.

- Ibilgailuen Ikusketa Teknikorako (ITV) ibilgailuen azterketa
- Era guztietako konponketak, garbiketak...
- **ESKAINZTA BIKAINA: 4 gurpil erosi eta 2 ordaindu!!**

Mekolalde

Mekolalde auzoa. Tfnoa: 76 59 14

A
U
T
O
A
K

SURPE

Taberna

Erdiko Plaza. Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA

ETXEBERRIA

ERLOJUDENDA-BITXIDENDA
Bidekurutzeta, 16 • ☎ 76 23 94

*Bergarako ETXEBERRIA Erlojutegi-bitxitegiak
Eguberri eta Urte Berri jai zoriontsuak opa dizkizue.*


Egun hauetarako oparia
aukeratzeko orduan ikusi
ezazue ETXEBERRIAk
erloju, bitxi eta edergailutan
duen aukera. Merezi du eta!!
Gainera, erosketak
egiteagatik urtarrilaren 9 eta

10ean egingo diren itsuen
zozketarekin batera 200.000
eta 100.000 pezetako sariak
banatuko ditu bertan zuen
gustoko erloju, bitxi edo
oparia aukeratu dezazuen.
Zatoz, lehenbailehen!!

*Gabon jaien inguruan bezeroei
zerbitzu hobe bat emateko asmoz,
**abenduaren 17 eta 24ean gure
dendak egun osoan zabalik**
izango ditugula adierazten dizuegu.
ZORIONAK eta URTE BERRI ON!!*



Ibargarai, 10 ☎ 76 00 85



Irizar, 3 ☎ 76 24 82



Barrenkale, 35 ☎ 76 17 27

43 urtez matrona izandakoa

Mikaela Mugika

"12.000 haur inguru mundura ekartzen lagundu dut"



"Lehen 24 ordu iraun zezakeen erditze batek. Gaur egun, ordea, asko aurreratu da"

Mikaela Mugika aski ezaguna da gure herrian, izan ere 43 urtez herriko hainbat lagun mundura ekartzen lagundu baitu. Kalkuluak egitea zaila den arren, gutxi gora behera 12 mila haur ingururen lehen negararak gertutik entzun ditu. Horrezaz gain, katekista lanak ere egin ditu eta duela gutxi omenaldia jaso du.

Noiz hasi zinen komadrona lanak egiten?

- 1.943an hasi nintzen. Hiru urtez Zaragozan izan nintzen ikasten, sanitario, A.T.S. eta komadrona. Bergarara etorri eta berehala hasi nintzen etxez etxe lanean.

Oso instrumental sinplea geneukan eta esku ona izatea garrantzitsua zen.

- Zela izaten zen orduko erditze bat?

- Joaten nintzen haurdun zegoenaren etxera eta nola zegoen ikusten nuen. Baina bitartean besteren bat erditzeaz izan zitekeen. Han ibiltzen nintzen alde batetik bestera.

- Tokatu al zitzaizun bi erditze batera atenditza?

- Bai, bat asistitzen nengoen bitartean, beste emakumearekin beste bat izaten zen. Txarrena baserrietara joatea izaten zen. Orduan ez zegoen ez kotxerik ez ezer eta oinez edo zaldiz joan behar izaten ginen. Ni ibilita nago astoan, zaldian, karroetan... Angiozarrera esnedunaren karroan joaten ginen eta tardatzen genuen oinez baino doblea.

- Erditzeaz zeudenen etxeetara joaten zinenen, nola hartzen zintuzten? Zerbait berezirik eskaintzen al zizuten?

- Ba, beti izaten zen zerbait; kafearen ordua bazen kafetxo bat hartzen nuen, Bergaran beti oso ondo tratatu naute.

- Maternitatea zabaldu zenean, etxez etxe joateari utzi zenion, horrek gauzak asko aldatuko zituen, ezta?

- Bai, horrela toki berean 4 edo 5 erditze aten-



- Fotokopiak koloretan
- Publizitadedun kamisetak
- Oihal inprimaketak

San Lorenzo, 7
behea.
☎ 76 50 39

AKORT

IBAI GRUAK



ZERBITZUA EGUN OSOAN

San Juan, BERGARA.
☎ 908-67 68 21 (mobila)
900-59 59 59 - 40 06 59 (abonatua)

AGIRREBEÑA

oinetakoak
arropa denda
lenzeria

Urteaga, 5 ☎ 76 18 29

ditu genezakeen. Han ere instrumental gutxi zegoenez, gure eskuak garrantzitsuak ziren. Mizpirualdeko maternitatean hogeitaka urte egon nintzen eta 5 urtez Konxita Iturriaren laguntza izan nuen. Honek asko lagundu zidan.

- Erditze on bat izateko zer da beharrezkoa, bai komadrona eta bai emakumearen aldetik?

- Lehen emakumeek primeran kolaboratzen zuten, han ez zegoen ez anestesiarik ez kalmantarik. Ezer ere ez zegoen. Beti izaten dira gora behera batzuk, baina ez, ez.

- Arazo larririk izan al zenuen?

- Bai egoten ziren. Orain ikusten dut nola

"Haurdun zegoenaren etxera joaten nintzen eta nola zegoen ikusten nuen. Bitartean, besteren bat erditzear izan zitekeen. Beti batetik bestera nenbilen"

atenditzen dituzten, bai zesareekin eta bai beste gauza batzuekin. Orduan umea aldrebes bazetorren guk konpondu behar izaten genuen. Izan genituen lehenengo tokologoak Eibarretik etortzen ziren. Baina askotan ez ziren ailegatzen eta emakumeak zegoenarekin konformatu behar ziren.

- Komadrona izatea, ardura handia izango zen ezta?

- Bai, oso handia. Nik zorte handia izan nuen. Tokologo barik lan egin nuen bitartean, bakarrik ume bat hil zitzaidan, infarto batekin. Umea bistan zegoen eta jota gelditu nintzen. Hartu nuen disgustoarekin uzteko ere egon nintzen. Baina gero suerte handia izan dut. Nik espezialistak egiten dituen gauzak egiten nituen. Pentsa ezazu, Elosuko puntan zela itxarongo zenuen espezialis-

ta etorri arte, ahal nuena behintzat egiten nuen. Liburuetan gauza bat ikasten genuen, baina egunero lanean gehiago ikasten zen.

- Antzuolara joateko trenbidea erabiltzen zenuten. Sustorik ere izan zenutela entzun dugu...

- Trenbidean lau erru-beratako kamila antzekoak zeuden eta Antzuolatik kamila antzeko horretan etorri ziren nire bila. Goiko estazioan konturatu ziren merkantziatzako tren bat irtenda zegoela, ahal izan zuen bezala frenatu eta salto egin behar izan genuen. Trenea gainean zegoetan eta. Beste behin Elosurako bidean "Tourmalet" izeneko aldapa bat pasatu behar genuen. Izotza eta edurra egiten zuenez, ezin genuen hura zutik pasatu. Baina Elurmendiko gizona etorri, kartoi batzuk lurrera bota zituen, bera gainean jarri zen eta ni bere atzean eta han joan ginen aldapa behera ziztu bizian.

- Emakumeekin haurra izan ondoren ze tratu izaten zenuen?



J.L. Kareaga (ezkerrean) eta Patxi Pineda (eskuman), Mikaelak mundura ekartzan lagundu zuen lehena eta azkena.

ARDATZA
Brikolaketa

Masterreka, 4 behea ☎ 76 18 93

- Ateak eta zokaloak
- Horma armairuak
- Sarrailak eta manilak
- Koadroen enmarkazioak
- Era guztietako moldurak
 - Apalak
 - Kajoiak

Taberna Kafetegia
EHIZTARIAK
LOS CAZADORES

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta, 26 BERGARA



1977an larrialdietako zerbitzua Bergaran zabaldu zenean. Ezkerretik eskumara, Julian Sevillano, Mikaela Mugika, Carmen Garai eta Jesus Barruso.

"Garai hartan ez zegoen ez kotxerik ez ezer eta oinez edo zaldiz joan behar izaten ginen"

tzion geundela aborto bat izan zuen emakume batek eta ondorioz odol asko galdu zuen. Medikua eta biok geunden eta odola Gasteiztik ekarri behar zuten. Bideak elurrez beteta zeuden eta gau osoa pasatu zuten odola ekartzeko. Gure

artean pentsatzen genuen emakumea hil egin behar zela, azkenetan zegoela. Baserriko leihotik begiratzen genuen eta ez genuen argirik ikusten, baina pelikuletan bezala, odolarekin azken orduan heldu eta emakumea salbatu genuen.

- Haurra izan ondoren 8 bat egunetan bere etxera joaten ginen, andrak zaintzera. Umea bainatzen genuen, kalentura bazuen tratamendu bat ipintzen genion, pisika bat danetik. Matrona lanaz aparte, norbaitek istripuren bat izaten bazuen maternitatean egiten nion lehenengo kura, puntuak jarri edo antite-tanikia eman.

- Ze lan da zailagoa matrona lana ala kura egitea?

- Ah bueno... Matrona lana, erresposabilitate gehiago du. Istripu larri-

ren bat izaten bazen, ospitalera bidaltzen genuen. Baina erditze normal batean ere, kontu handia izan behar zen.

- Lehen zenbat irauten zuen erditze batek?

- Askok, igual 24 ordu ere bai. Gero indiziñoe-kin etb.ekin asko aurreratu zen.

- Noizbait izan al zenuen beldurrik?

- Bai, askotan ikusten genuen gauza estu eta larri. Etxetan nenbilela, tokologoak etorri arte estutasun asko pasatzen genuen. Behin San Pruden-



Zaragozako eskolako ikaskideekin 1943. urtean.

MUJIKAK

Burdinaki denda

Bidekurutzeta, 8 ☎ 76 28 67 BERGARA

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

☎ 76 19 54 BERGARA
☎ 79 91 82 ARRASATE

LARRAÑAGA eta ZUBIA Banatzaileak

Errioxako ardoa, olioak,
esnea, lejiak...

Martokua, 32 ☎ 76 45 94



GAZTELU

BURDINAKI DENDA

Mintegi, 1 Tfnoak: 76 32 48 / 76 34 50 BERGARA

Gazteen arazoak


Gu gazte talde bat gara eta bizitzan hainbat eta hainbat eragozpen aurkitzen ditugu. Gure hamabost urte gazte eta momentu berean zahar hauetan, alde batetik eskolak eta gurasoek hainbat arazo sortzen dizkigute, hauen artean notak etxera eramateko orduan askok eta askok bronka ederrak jasotzen dituzte suspentso kopurua dela eta.

Beste alde batetik gazteak garenez kaliko saltsak diru behar bat sortzen digu eta gurasoek non gastatuko dugun beldurrez ez digute nahikoa diru ematen.

Guk pentsatzen duguna zera da: guk, gazteok ez dakigu nola dibertitu aste-bukaeran eta denbora librean. Hor ibiltzen gara gaztetxe, lokal edo tokiren ba-

tzuk eskatzen eta nahiz eta hau guri oso ondo iruditu, inor ez da mendira, bizikletan ibiltzera edota pala partidu bat jokatzera joaten.

Aztertu behar den beste puntu bat hau da: jendea gero eta gazteago hasten da erretzen eta edaten, eta nahiz eta jende askok hau alde batera utzi, jende gehienak aurrera jarraitzen du, hau oso kaltegarri bihurtuz.



Penkoak

Bigarren mailako ikasleok gabiltza nahiko larri zazpi penko euki dituzula entzun diozu maixuari. Etsipena gainean eukita esaiozu hori amari Gabon onak opatu dizkiot bihotzeko lagunari.

Laster helduko dira Gabonak ta ni sartuta logelan matematikako liburua eukita esku artean. Lagunak alai ta zoratuta farra ta farra kalean hurrengo ebaluaketarako ez naiz geldituko etxean.

DOINUA:

NORTEKO TRENBIDEA

EGILEA:

NILIJ TALDEA

KOTILEO

EXPRESS

RICHARD GERE

Gure Richard Gere maiteak kriston adarrak jarri dizkio bere emazteari beste *Top Model* batekin. Baina kontua ez da hor bukatzen: bere emazteak ere, Cindy Crawford-ek gauza bera egin du beste tipo batekin. Susmoak daude tipo horren izena Jon Bon Jovi dela. A zelako suertea Cindy Crawford-ena!

KEVIN COSTNER

Hona hemen beste "Don Juan" baten istorioa: bere emazteak detektibeak kontratatu zuen Kevin Costner espiatzeko. Detektibeak dioenez parean topatzen zuen edozeinekin joaten zen.

IZAR RODRIGUEZ, EMMA HIDALGO, PATTY SAINZ, SOLE MATILLA ETA LIERNI CABALLERO

HOROSKOPOA



ARIES
martxoak 21-apirilak 20
Goenkaleren kapitulo bat galtzeagatik zure burua hilko duzu.



TAURUS
apirilak 21-maiatzak 20
Egin kasu anaiari. Anaia zintzoa daukazu eta.



GEMINI
maiatzak 21-ekainak 20
Gabonak gertu daude baina hainbeste penkorekin...



CANCER
ekainak 21-uztailak 21
Kantzerko tropikoa zeharkatuko duzu.



LEO
uztailak 21-abuztuak 23
Aspaldiko partez atsotan egingo duzu.



VIRGO
abuztuak 24-irailak 23
Utziozu behingoz matekoari pelota egiteari.



LIBRA
irailak 24-urriak 23
Ispiluan begiratzean, zera esango duzu: Ah!, mostruo bat!!



SCORPIUS
urriak 24-azaroak 23
Zoritxarrekoa haiz, Roldanekin topo egingo duk eta.



SAGITARIUS
azaroak 23-abenduak 23
Sagar bat burura eroriko zaizu eta Newton zarella pentsatuko duzu.



CAPRICORNIUS
abenduak 24-urtarrilak 20
Teila bat burura eroriko zaizu (bi ez badira)



AQUARIUS
urtarrilak 21-otsailak 18
Arrainek ihes egingo dizute.



PISCIS
otsailak 19-martxoak 20
Akuarius! Veni! Zure arrainak hemen daude.

TXISTEAK

Zenbat bilbotar behar dira bonbila bat jartzeko?

Sei. Bat bonbila eusteko eta bost mahaiari birak emateko.

Zein da munduko animalirik azkarrena?

Oilo bat Somalia gurutzaten. Eta bigarren azkarrena? Oiloaren atzetik doan somaliarra.

Ba al dakizue nor den munduko monjarik harrigarriena?

Sorpresa
Eta monjarik indartsuena?
Sorgoku.
Eta bigarren monjarik indartsuena?
Sorsenager.

Zein da munduko santurik hiltzaileena?

Santiago "Con Pistola"
Eta munduko santurik kuadratuena?
San Markos

HIZKI saltsa

Gabonak gainean ditugula eta, giroan sartzen hasteko, anima zaitetz eta topa itzazu hitzak letra saltsa honetan

GABONEI BURUZKO 16 HITZ HAUEK:

GABON GAUA
GABON KANTAK
ELURRA
KANPAIAK
POLBOROIAK
FAMILIA
OLENTZERO
ERREGE
TURROIA
TXANPAINA
MAHATSA
OREINAK
ZUHAITZA
URTE BERRIA
OPARIAK
ARGIAK


A	D	L	M	A	U	A	G	N	O	B	A	G	H	X	Z	F	I	G	A
E	B	D	W	H	Z	X	Z	E	Z	F	G	F	H	I	H	O	S	G	T
A	S	T	A	H	A	M	D	L	A	B	C	Z	D	S	S	L	I	J	I
D	A	B	G	U	Y	A	B	E	L	U	R	R	A	J	X	E	K	Z	J
E	U	V	W	E	V	O	O	N	M	L	K	K	I	R	E	N	L	F	G
A	F	B	C	R	S	W	P	I	Q	P	A	O	R	Y	X	T	X	M	H
N	A	Q	H	T	T	P	Y	A	Q	M	I	Ñ	R	Q	X	Z	X	K	X
I	Q	B	E	U	D	O	E	R	R	E	G	E	E	M	N	E	Z	A	L
A	C	A	O	R	P	K	Ñ	Z	N	I	R	X	B	W	X	R	K	N	I
P	Q	Ñ	M	R	L	Q	L	K	Y	Z	A	X	E	O	P	O	Y	P	W
N	M	N	N	O	R	E	I	N	A	K	H	K	T	Ñ	N	X	M	A	J
A	H	R	Y	I	X	Q	T	S	J	R	A	R	R	M	G	L	V	I	K
X	V	W	F	A	M	I	L	I	A	X	I	L	U	H	H	Z	Z	A	B
T	U	J	P	O	L	B	O	R	O	I	A	K	A	U	D	X	A	K	C
O	S	J	K	T	U	K	A	B	H	V	W	U	V	W	C	D	E	F	X
K	T	G	A	B	O	N	K	A	N	T	A	K	E	F	X	X	G	X	R
N	Ñ	L	P	X	Q	X	A	B	X	Z	U	H	A	I	T	Z	A	X	S

Superstiziosoa al zara? Horrelakoetan sinisten al duzu?



Pakita Agirrezabal
70 urte, jubilatua

Ez, ez, ez, horrelakoetan ez dut sinisten ez diet kasorik egiten horrelako kontuei.



Xabier Uribesalgo
16 urte, ikaslea

Ez gehiegi, baina apur bat bai. Azterketak ditudanean eta horrelakoetan bai. Martitzenean esate baterako, esamina izan nuen eta gaizki egin nuen...



Eva Marcos
14 urte, ikaslea

Ez, ez naiz superstiziosoa. Gauza horiek ez ditut kontutan hartzen.




Jose Luis Retolaza
33 urte, langilea

Ez dut gehiegi sinisten horrelakoetan. Martitzen eta 13 batean, esate baterako, ezkonduko nintzateke... Ez nuke esaera kontutan hartuko



Mariam Conde
33 urte, langilea

Ez, normalean ez diet inportantziarik ematen kontu horiei, tontakeria hutsa direla uste dut



Jose Mari García
40 urte, langilea

Ni ez naiz superstiziosoa, baina horrelako kontuei kaso egiten dietenei ulertzen diet eta errespetatzen ditut.

BERGARA
UDAL **EUSKALTEGIA**
ZABALOTEGI, 13
TFNOA: 76 44 53

EGA eta ALFABETATZE IKASTAROAK

MATRIKULALDIA
Abenduaren
19tik 23ra arte

BULEGO ORDUAK
Goizez: 8.30-12.30
Arrtsaldez: 14.30-18.30

16 URTEZ GORAKOENTZAT
Bekatze sistema eta diru
laguntzak ditugu.
Galde ezazu



"Izar" berria

Bergara eta inguruetan bertsotarako zaletasuna izan da eta bada oraindik ere. Ikusi besterik ez zer nolako jendetza biltzen den bertso jaialdiak antolatzen direnean. Zaletasunaren proportzio berdinean bertsolariak sortuko balira, gaur egun beste kuku-rruku bat entzungo genuen.

Elosun eta Osintxun bakar batzu izan dira ospe dexente izan dutenak, Egileor eta Gorrotxategi. Ez dira motelak izan. Gatzaga aldean berriz, Sarasua anaiak eta Arantzazu Loidi. Eta kito. Agortu da iturria. Gutxi. Gutxitxo. Batez ere kontutan hartzen badugu, Garate jaunak, oindik oraintsu esan dabena egia izanik, eskualde horretan egiten omen da euskara onena edo aberatsena.

Beno baina ez etsi. Ez horixe! Esperantza berria erne da.

Badator bai, erne da, kimu berria. Xenpelar saria irabazi du, aste honetan Erreterian bergarar neskakila batek. Ainhoa Agirre-azaldegia neskakila ponpoxak, 16 urte inguru izango ditu eta dabilia! zaplastekoa eman zahar gutziei.

Ea ba, izar berria, diztiratsua argiemaile bihurtzen den Bergara hiri gunean, Uberan, Elgetan, Osintxun, Angiozarren, Mekolalden, Xubixaurren, Antzuolan, Altosomosen, Sanprontzion (Elorregi) eta gainontzeko auzoetan.

Beharbada astakeria izango da baina esatera noa; hor konpon! Bertsolariak sortzen diren bitartean euskarak bizirik dirau.

Zorionak, zuri, Ainhoa eta ez etsi, eutsi goiari. Bertsolaritza munduan nor izan nahi baduzu, bidea luzea eta arantza gabeko larrosarik ez duzula izango. Gabon giroan gaudenez, Bergarako zeruan "Izar" berria azaldu da. Gogoz sentitzen denak har dezala norabidea.

Andres OSA "SAKONA"



Geto euskalduna

Pasatako astean nire lana dela eta bi egun igaro nituen Durangoko Azokan. Elkarrizketak, kantariak, idazleak, poetak, aurkezpenak, disko eta liburuak, denok dakigu jadanik Durangoko Azokan aurkitu dezakeguna euskal kulturaren adierazgarri fidela bilakatu dela.

Bertan nengoelarik, zegoen jendetza ikaragarriari so, bapatean nere lankideak zera esan zidan: konturatzen al zara euskaldunok osatzen dugun getoaz? Ezin izan nion une hartan erantzun, bapatean elkarrizketatu behar genuen kantari bat ikusi baigenuen, baina esaldi hura nire buruan geratu zen.


Durangon izan nintzen bi egun horietan zehar esalditxo hori aztertu nuen. Azkenen onartu behar izan dut, baliteke euskaldunok geto bat osatzea, gure hizkuntza, musika, dantza eta tradizioak ditugu, bertsolaritza, ohiturak eta abar luzea. Urtean zehar zenbait tokitan biltzen gara: Kilometroak, Ibilaldia, Herri Urrats, Nafarroa Oinez, Araba Euskaraz, Egunkaria Eguna, Durangoko Azoka, bertsolari txapelketak eta abar luzea.

Baina euskaldunon mundu hau geto batean bilakatu baldin bada, ez al da beharturik izan? Eta gainera, zer axola geto edo ez geto, bertan bihotzez eta gustora baldin bagaude?

Euskaraz aritzeak eta hau kaletik barra-barra entzuteak bihotza pizten bagaitu zer egin dezakegu?

Nora ASKARGORTA

B
E
H
E
R
A
P
E
N
A
K



Avda. Vizcaya, 1
Tel. 77 14 24
ARRASATE

Elena



Bizkaia Etorbidea, 1
etxabea


Tfnoa: 77 14 24

B
E
H
E
R
A
P
E
N
A
K

**Aldoka
Maldoka**

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA



Irizar, 2
☎ 76 14 95

JAUJA KIROLAK



Miserableak

Aurreko igandean Miserableak ikuskizuneko bi aktu ikusi ahal izan genituen ETB-1eko "Goraintzi" saioan, "Jende txikia" eta "Etxeko jauna" hain zuzen ere. Estrainaldian grabatutako soinuarekin play-backa egin zuten eta emaitza primerakoa izan zen. Hori gutxi balitz, lehen aurreratu genizuen moduan, ETBk ikuskizun osoa eskeintzeko asmoa du eta berehala grabaketak hasiko dira: audioa abenduaren 28an Miramonen grabatuko da eta antzerkia grabatzeko, berriz, oraindik ez da zehaztu non eta noiz izango den. Miserableakeko partaideek Arrasaten grabatzeko asmoa azaldu dute. Muntaia egin ondoren, telebistaz ikusi ahal izango dugu.



Argazkian, Miserableak muntaiaiko aktoreak Miramoneko estudioetan.

Xenpelarren oinordekoa

Ainhoa Agirrezaldegi bergarar bertsole gazteak **Xenpelar Saria** irabazi zuen ostegunean. Asteartean 18 laguneko artean sailkatze probak egin ondoren (Ainhoa izan zen aurkeztu zen emakume bakarra), 16 urtetik 20ra bitarteko 8 bertsolari sailkatu ziren finalerako eta Ainhoa lortu zuen garaipena Aitor Mendiluze andoaindarraren eta Aitor Sarriegi beasaindarraren aurretik. Horrez gain, epaimahaiak bertso onenaren saria ere eman zion. Hona hemen senar-emazteak ohe banatan lo egitea defendatu behar eta bota zuen bertsoa: Nik iritzia ematen ondoren gelditu da zuri-zuri/kontatutako guzti honekin arritu samar dirudi/azkenaldian gauzak hain gaizki dijoazkigunez guri/ logelak ere izan behar du egoeraren irudi.

antzinako gauzak
dekoratzeko ideiak

Rincones

dekorazioa

Irala kalea z/g BERGARA Tfnoa eta Faxe: 76 52 98

LARREA

TABERNA

Kale Barren, 17
ANTZUOLA

Arazoak

Alberto Sotil Sotil oinetakodendako jabea **Interviuko** 968. zenbakian (azaroaren 20koa) ikusi ahal izan genuen, **Zapatodos** enpresari buruz egindako erreportaian. Bertan Zapatodos frankiziaren hainbat kasu aztertzen dira eta guztiek, tartean Albertok, uste baino negozio txarragoa



izan dela azaltzen dute. Dirudinez, diru mordo bat irabaziko zutela agindu zieten baina salmenta prebisioak ez omen dira inoiz bete. Ea gauzak hobetzen diren...

Akordeilari fina

Leire Asiain 12 urteko akordeoilari bergararrak zilarrezko domina irabazi zuen aurreko astean Arrasaten jokaturako Gipuzkoako Akordeoi Jaialdian, B kategorian. Leire 1.go mailako akordeoi ikaslea dugu Bergarako Musika Eskolan, bertako Akordeoi Orkestako partaidea da eta txapelketan honako pieza hauek jo zituen: "3. estudioa" (Renato Buirena) eta "Variaciones sobre un tema" (J. Draegerena). Zorionak Leireri eta eutsi sasoiari!!



Zertan dihardute ba?



Xabier Alberdi

orainarte JARDUN Elkarteko dinamizatzaile izan den 27 urteko bergararra telebista saio bat gertatzen ari da Jon Anduezarekin batera. *"Gutxi gora behera"* saioa urtarrila aldera hasiko da emititzen eta beren hitzetan, *"lebiaketa kulturala izango da, adin guztietako pertsonentzat zabaldua, 140 bat pertsona izango dira lebian eta Euskal Herriko lekuak, pertsonajeak eta euskaren inguruko galderak asmatu beharko dituzte"*. Saioa egunero 14.30etatik 15.00etara emitituko da eta biak izango dira saioko zuzendariak, Anduezak aurkezle lanak egingo dituelarik.

BERGARA
Karrozeriak
Txapa - Pintura

Zubieta, 46 BERGARA
 ☎ 76 12 31



Gaspar

JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
 SELF-SERVICE-A

Barrenkale, 31


Tfnoa: 76 20 02

BERGARA

Miguel Angel Martínez

Miguel Angel Martínez (33 urte) aski ezaguna da Bergaran. Victoriano bere aita zenak ofizioa utzi zuenetik, urte osoan zehar golosinak saltzen topa dezakegu Plazan, Harindondineko furgonetan.

- Zergatik Harindondin?
- Irina barkilloaren oinarria delako. Eta dondin gehigarri bat litzateke. Hasieran Farindondin zen baina aitak "F" a "H" agatik aldatu zuen.
- Saga familiarrari eusten?
- Eutsi badaiteke...
- Goxozalea zara?
- Egunak dauzkat.
- Gehien saltzen den golosina?
- Chupa-chupsak.
- Eta zuk jaten dituzu?
- Ez.
- Noiz jaten da goxoki gehien?
- Urte osoan. Gutxien Gabonetan, jendea beteta egoten delako.
- Goxoki enpatxorik inoiz?
- Ez.
- Eroslerik onenak?
- 14-17 urte bitartekoak.
- Harindondin, haurren aurrezki kutxa?
- Ez dut uste.



"Urte osoan jaten dira goxokiak; gutxien Gabonetan, jendea beteta egoten delako. Ez dut sekula goxoki enpatxorik izan eta ordu hilak irakurriz edo irratia entzunez igarotzen ditut. Kulturismoa ez dut serioegi hartzen"

- Erosle formalak al dira?
- Bai, gero eta gehiago gainera.
- Helduak hurbiltzen dira?
- Zenbat eta zaharrago izan, lotsa gutxiagoz etortzen dira. Beharbada iragana gogoratzeko...
- Zergatik furgoneta batean?
- Mugikortasuna ematen duelako. Leku bakar batean ezin da negozio honekin bizi.
- Furgoneta zaharra, non?
- Txatarran amaitu zuen.
- Krisirik ezagutu al du negozioak?
- Igaritzen da bai.
- Nola pasatzen dituzu ordu hilak?
- Irakurriz edo irratia entzunez.
- Asteko atsedena noiz eta non?
- Astelehen arratsaldean. Erosketak egin edo herri txikiren bat bisitatzeko aprobetxatzen dut.
- Kirolrik egiten duzu?
- Bai, kulturismoa. Eta udan bizikleta.
- Asko zaintzen duzu gorputza?
- Ez dut kulturismoa serioegi hartzen baina ez dut edozer jaten.
- Schwarzenegger ala Stallone?
- Schwarzenegger.
- Zubirik egin zenuen aurreko astean?
- Ez, asteko 7 egunetan eta urte osoan lan egiten dut.
- Gabonak atsegin zaizkizu?
- Gero eta gutxiago.

Arantzabal

OIHALAK

Zubieta ☎ 76 11 50

GURIA

Taberna

Bidekurutzeta, 5
☎ 76 20 34

Kirola egiteko behar den guiztia

BOLINTXO

lbargarai, 10
☎ 76 38 32


ARREGUI, E.M.

ARROZTEGIA

- AROZLAN MEKANIKOAK
- SUKALDEKO ARMAIRUAK
- HORMA ARMAIRUAK
 - ATEAK, etab.
 - TARIMAK-PARKETAK
- NEOPRENOZKO JUNTADUN EGURREZKO LEIHOAK
- PVCzko LEIHOAK

Urteaga, 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta, 38

BONOFOTOA



Jose Miguel Ortigosa

Jose Miguel Ortigosa jaso du aste honetan BONOFOTOko saria, joan zen astean egindako galderak berak asmatu ditu eta. Argazkian agertzen ziren irudiak zein kaletan aurkitzen ziren galdetzen genizuen eta erantzun zuzenak: **Jose Angel Ugaldere**n (eta ez Jose Ramon Ugalde joan zen astean jarri genuen bezala) ordularia **Oxirondo plazan** eta **Ramon Noé**-ren eskultura **Amillaga kalean**. Beraz, aste honetako 10.000 pezetak **Jose Miguel Ortigosari** eman dizkiogu.

Zein da baserri honen izena?

Izena: _____ Abizena: _____ Tfnoa.: _____

Saria
10.000 pzta.

Moztu paper hau eta
ekarri asteazken eguerdia baino lehen

BERRIGARA
Errotalde Jauregia Bergara

ETXEBIZITZA

Etxe berria salgai Osintxun. 100 m2, ganbara eta gara-jea. ☎ 76 48 63.

Pisua salgai Artekalen. ☎ 76 12 81.

Pisua salgai Osintxun. ☎ 76 50 05 (Josune).

Pisua salgai Zubiaurre 25en. ☎ (945) 28 13 05.

Pisua alokatzen da Matxia-egin. ☎ 76 46 15.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. ☎ 76 56 90.

Garajea salgai Iargarai kalean. ☎ 76 00 93.

Pisua salgai Jon XXIII enparantzan. ☎ 76 13 75.

Garajea alokatzen da Koldo Eleizalden. ☎ 76 30 10.

Pisua salgai Artzamendin. ☎ 76 10 55.

Garajea salgai Zurradero 8an. ☎ 76 13 93.

Pisua alokatzen da Bolun. ☎ 76 39 91.

Pisua salgai Martokua 18an. ☎ 76 00 51.

Pisu bat salgai Basarten. ☎ 76 25 45 (Javier).

Garajea saltzen da Iargarai kalean. ☎ 76 44 25.

DENETARIK

Renault 18 diesela salgai. ☎ 76 50 18.

Bainerarako hidromasaje aparailu, lehorgailu eta beste osagaiak. 90.000 pezeta. ☎ 76 53 90.

Karro-denda ia berria salgai. Prezio onean. ☎ 76 41 21.

Fagor ur berogailua salgai. Prezio onean. ☎ 78 33 09 (Ainhoa).

Lada Niva (SS-AN) eta **Ford Scort (SS-AD)** kotxeak salgai. ☎ 76 00 51.

Volkswagen Corrado kotxea salgai (SS-AG). ☎ 76 38 16 (gauetz).

Renault 19 16v. kotxea salgai (SS-AJ). 53.000 Km. ☎ 76 24 02.

Zibro estufa salgai (egoera onean). ☎ 76 12 86.

BBT mendi bizikletarako Rond-fork suspentsio oleoneumatikoa salgai. ☎ 76 52 31 (gauetz).

Zibro-kamin kerosenozko estufa bat salgai. Merke. ☎ 76 05 94.

Geace's paseozko bizikleta prezio onean salgai. ☎ 76 16 51.

LANA

Ingeles klaseak. ☎ 76 22 90 (Ainhoa).

Eskoziar batek ingeles klase ordu bat gaztelerako beste bategatik aldatzen du. ☎ 76 30 34.

OHO eta ingeles klaseak. ☎ 76 17 18 (Jesus).

Etxebizitzak garbitzen ditut. ☎ 76 59 47 (Loli).

Etxeko konponketak (instalakuntzak etab.) egiten dira. ☎ 76 30 10 (Javi).

BBB eta LH klaseak. ☎ 76 24 31 (Eneko).

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 57 53 (Sonia).

Matematika eta Zientzietako klaseak ematen dira. ☎ 76 06 50.

Fisika eta matematika klaseak. ☎ 76 24 57.

Masaje metamorfikoa ematen dut. ☎ 76 25 99 (Ana).

Etxeko lanak egin edota haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 08 55 (Miren, gauetz).

Erizain laguntzaileak zaharrak zainduko lituzke (gauetz ere bai). ☎ 76 47 71.

Ingeles klaseak ematen dira. ☎ 76 31 36.

Matematika finantziario klaseak. ☎ 76 05 43.

Korreo eta Epaitegirako oposizioak gertatzen dira. ☎ 76 08 53 (12-16.00).

Euskarazko klaseak hartuko nituzke. ☎ 76 05 97.

Haurrak zainduko nituzke. ☎ 76 45 93.

Ingeles klaseak ematen ditut. ☎ 76 26 63.

San Martin Osasundegia

DERMATOLOGIA
UNITATEA
Garcandia Doktorea

PATOLOGIA DIGESTIBOEN
UNITATEA
Otazua Doktorea

OBSTETRIZIA ETA
GINEKOLOGIA UNITATEA
Serrano Doktorea

PSIKOLOGIA
UNITATEA
J.R. Fernandez

ZIRUGIA
UNITATEA
Alberro Doktorea

Ramon Maria Lili, 2 • Tfnoa: 76 59 39 / 72 • Faxa: 76 25 72

**KIROL
KARTEDEGIA**

► **Futbola**

Bergara-Lagun Onak
Preferente maila.
Igandea, 15.30. Agorrosin.
Bergara-UDA
Lehen Erregionala.
Larunbata, 15.30. Ipintza.
Bergara-Beasain
Lehen mailako kadeteak.
Igandea, 17.15. Ipintza.
Bergara-Ilintxa
2. mailako kadeteak.
Igandea, 11.30. Ipintza.
Bergara-Eibar
Lehen mailako infantilak
Igandea, 10.00. Ipintza.
Bergara-Aloña Mendi
Emakumezkoak.
Igandea, 17.15. Ipintza.

► **Eskubaloia**

Bergara-Mollarri
Kadete mutilak.
Larunbata, 17.45.
Bergara-Pulpo
Senior mutilak.
Larunbata, 19.00.
Bergara-Kukullaga
Kadete neskek.
Igandea, 11.15.
Bergara-Kukullaga
Jubenil neskek.
Igandea, 12.30.
Guztiak kiroldegian.

► **Saskibaloia**

Bergara-Intxaurren
Senior mutilak.
Larunbata, 16.15.
Bergara-Zarautz
Jubenil neskek.
Larunbata, 12.15.
Biak Kiroldegian.

Ariznoako gimnastak Gijonera Espainiako txapelketara

Ariznoa Gimnasia Erritmikako alebin eta junior taldeek Espainiako Txapelketa jokatu dute aste bukaera honetan Gijonen. Bergarako gimnastak asteazkenean abiatu ziren autobusez Gijon aldera eta entrenatzaileen asmoa bi kategorietan 8 finalisten artean sailkatzea litzateke.

Sosak biltzeko partidua


Bestalde, datorren larunbatean, abenduak 24, Ariznoa Gimnasia Taldearen alde, ezkondu gabe eta ezkondu emakume eta gizonen arteko futbol partiduak izango dira Agorrosinen. Lehenbizi, 15.30etan emakumeek neurtuko dituzte



Alebin eta juniorrak Espainiako Txapelketan izango dira Gijonen.

indarrak eta jarraian, 16.30etan, gizonen txanda izango da. Besteak beste, Eva Arevalillo, Maribi Berraondo, Maritxu Barrena, Arantxa Lizarralde, Victoriano Gallastegi, Luis Abajo, Iñigo Zaitegi edota Iñaki Ugar-

teburu futbol ikusgarria eskeintzen saiatuko dira. Sarrerak 300 pta. tan jarriko dira salgai (haurrentzat 100). Horrez gain, sarrerarekin batera, atsedenean edurretan astebukaera bat bi pertsonentzat zozketatuko da.



Iker Muruamendiaraz Baqué Txapelketako finala galdu zuen igandean Oartzunen 18 eta 14ko emaitzarekin Azpeitiako Otaegiren aurka. Bi pelotarietako partidu bikaina eskeini omen zuten eta ikusleak zein Baquéko ordezkariak oso gustora azaldu ziren. Otaegik Bizkaiko txapelkunaren aurka jokatzeko eskubidea izango du Gipuzkoako Txapelketa irabazi ondoren. Reyes Azkoitia entrenatzaileak azaldu digunez, "biek oso partidu ona egin zuten eta oso ikuskizun polita izan zen. Ikerrek ezin izan zion Otaegiren boleari erantzun eta hor joan zen partidua".

Atsedeen zentrua
LOKARTU
Koltxoi-denda
Orain SORALUZEN

Maxim's
☎ 76 20 61

ZUBIETA
elektragarritza
MOTORREN BOBINAKETA
ERA GUZTIETAKO INSTALAKUNTZAK
Kruz Gallastegi, 2 behea
☎ 76 23 48

KIROL TOPAKETAK

Deba Garaiko II. Kirol Topaketak izango dira asteartearen eta asteazkenean Oñatin. Asteartearen "Escola kirola" aztertuko dute 18.30etan Santa Ana antzokian Josetxo Muniategi eskubaloia entrenatzaileak, Iñazio Arregi Aranzadiko zuzendariak, Jesus Gutiérrez Diputazioko teknikariak eta Margarita Gomendio IVEFeko ikasleak. Asteazkenean, ordu eta toki berean, Iñaki Ugarteburuk moderatutako "Kirol taldeak" gaia izango da aztergai.

RUGBY ZAPIA

Bihar larunbata 10etatik 12etara rugby zapi ikastaroa emango da Kiroldegian. Izen-ematea: 500 pezeta.

KIROLDEGIA ITXI

Kiroldegia itxita izango da abenduaren 19tik 22ra hainbat hobekuntza lan egin ahal izateko.

Kirola Gabonetarako

Jolasak eta lehiaketak haurrentzat eta boleibola, saskibaloia eta futbitoa nagusientzat

Udaleko Kultura eta Kirol zerbitzuek Gabonetarako programazio erakargarria prestatu dute haur, gazte eta nagusientzat. Batetik, 14 urtera arteko neska-mutilentzat haur jolasak izango dira igerilekuetan abenduaren 28, 29 eta 30ean goizeko 10.30etatik ordubatera. Bazkideentzat sarrera doan izango da eta gainontzekoek 100 pezeta ordaindu beharko dituzte.

Era berean, Kiroldegian denetariko jolasak izango dira abenduaren 26, 27, 28 eta 29an arratsaldeko 3 t'erdietatik 6 t'erdietara bitartean. Jolasez gain, Kikaundik hankapalu, sukaldaritza, etab.eko tailerrak antolatuko ditu. Sarrerak 100 pezetatan jarriko dira salgai eta beharrezkoa izango da zapatilekin joatea. Hilaren 30ean, berriz, 15.30etan, plazan, sukaldaritza lehiaketa jokatu-ko da eta ondoren Bizar-



Haur jolasak igerilekuetan izango dira abenduaren 28, 29 eta 30ean.

Zuri helduko da gure herrira.

Nobedadeak

Bestalde, 15 urtetik gorakoentzat Kirol Anitzeko Txapelketa (futbito, saskibaloia eta boleibola) jokatu-ko da urtarrilaren 2tik 5era bitartean Kiroldegian. Taldeak 5 lagunez osatu beharko dira eta izena emateko

epea abenduaren 29an bukatuko da, ordubietan (talde bakoitzak 1.000 pta. ordaindu beharko ditu). Interesatuak Udaleko Kirol Zerbitzura jo dezakete. Talde irabazleak afaria, opariak eta trofeoa eskuratuko du, bigarrenak kamisetak eta trofeoa, hirugarrenak opariak eta trofeoa eta laugarrenak eta bosgarrenak opariak eramango dituzte.

GAZTE

Ikastaroak



NARRUA. ASTEARTETAN. 17.30 - 19.30 (30 ordu)

TAILA. ASTEAZKENETAN. 17.30 - 19.30 (30 ordu)

ARGAZKILARITZA. OSTEGUNETAN. 17.30 - 19.30 (30 ordu)

MATRIKULA:

1.000 pza. ikastaro bakoitzeko

INFORMAZIOA ETA IZEN-EMATEA:

JARDUNen (Masterreka, 13. ☎ 76 08 19)

AZKEN EGUNA:

Abenduak, 30



Gazte Taldea

LAGUNTZAILEAK: Bergarako Udala • Gipuzkoako Foru Aldundia

GARTZELA ZAHARREAN



emaitzak

Labegaraieta-Pikapiedras	3-4
Hartu Zamak-EH Biterrak	10-1
Amozkibar-Nahikari Hoolligans ..	1-2
Arloteak-Bildurbarek	1-3
Soropotroak-Eri	2-3
Shaktale-Krai	3-2
Arkupe-Usoa	2-7
Madura-Mongatxurra	6-2
Txipiron-Los Txupeta	1-1
Ezinleike-Igandekoak	1-8
Pata Negra-Patxaran Team	6-4
Nekrofilikos-La Juve	2-6
Os Jardineiros-Pagomendi	2-3
Errotagain-Angiozar	10-1
Ozaeta-Kabia	4-3
A Ze Flaxa-Etxenagusia	6-3

partiduak

IGANDEA

Barruan

9.00: Kirolzaleak-Krai (Ufala)
 10.00: Bar Canalejas-Ufala (Kirolzaleak)
 16.00: Usoa-Pagomendi (Bildurbarek OPEL/LAM)
 17.00: Bildurbarek-Angiozar (Etxagi)
 18.00: Ogizun-Etxagi (Uve Bikoitza)
 19.00: Uve Bikoitza-Revienta (EH Biterrak)
 20.00: EH Biterrak-Soropotroak (Revienta)

OHARRA:

Parentesi artean partiduak arbitratu behar dituzten ekipoak

den taldeak sari bat jasoko du, baina bigarren fase hau bukatzen denean, Play-Offak jokatu dira txapelketako irabazlea nor den jakiteko.

Lau maila

Horrela, bada, datorren urtean lehen maila, esate baterako, bigarren fase honetako A multzoko hamar taldeek eta B multzoan lehen eta bigarren sailkatzen direnek osatuko dute. Bigarren maila, berriz, B multzoan hirugarrenetik 10.era sailkatzen diren zortzi taldeek eta C multzoko lau lehenengoek osatuko dute. Hirugarren maila, C multzoko 5.etik hasi eta 9.era arteko bost taldeek eta D multzoko 6 lehenengoek eta 4. maila, azkenik, D multzoko 8 eta 9.ak eta E multzoko zortzi taldeak.

Astelehenean bilera Kultur Etxean

Bestalde, Antolaketa Batzordeak dei bat luzatu die txapelketan ari diren taldeetako ordezkariari. Kiroldegiko tasa igoerak direla eta, talde bakoitzak 3.000 pezeta gehiago ordaintzeko proposamena egingo du Antolaketa Batzordeak.


Bilera astelehenen arratsaldeko 7.30etan Kultur Etxean egingo da.

Bigarren fasea martxan

Igande honetarako zazpi partidu iragarri dira

Martxan da Labegaraietako Futbito Txapelketako bigarren fasea. Dagoeneko bi jardunaldi jokatuta dira eta hirugarrena igande honetan jokatuko da. Bigarren fase honetan ere bost multzo osatu di-

ra, bi lehen mailan eta beste hiru bigarrean. Fase honetan, txapelketako irabazlea eta datorren urtean osatuko diren mailetan zein talde izango diren erabakiko da. Lehen multzoan lehen sailkatzen



POL-POL

TABERNA

☎ 76 07 78

DEPORTIVO

TABERNA

☎ 76 01 51

YAZKI

UME GAZTE

Neska eta mutil

Irizar, 3
☎ 76 16 14

Ibargarai, 8
☎ 76 54 73

MUJIKA

Jantzidenda

Barrenkale, 1 Tfnoa: 76 29 91



Kategorixako kantantiak

Erretratuan urtetzen dabenak, 1949.eko Gabonetan Donostian organizatutako Gipuzkoako Gabon Kantuen Lehiaketako irabazliak die. Marino Basterra maixuan eskolako ikasliak, beste lagun batzukin batera, lelengo premixua ekarri zeben Bergara aldera. Hau danau, Nicomedes Larrañaga direttore eukitta.

Gañera, esan bia da erretratuan gizon itxuriakin urtetzen daben gazte mordo horrek, hamar eta hamalau urte bittartian daukala. Ze kantauko ete zeben?

Ezkerretik eskumara: Ignacio Azkarate, Sabas Igartua, Felix Garitano, Martin Aranburu, Francisco Aranzabal, Jose Ramon Aiausti, Jabier Zabaleta, Fermin Aretxaga, Ramon Agirrezabal, Antonio Iturbe, Francisco Lonbide (†), D. Marino Basterra (maixua, †), Nicomedes Larrañaga (Diretoria), Jabier Beistegi, Ignacio Irizar, Santi Galdos, Luis Mari Egaña, Fernando Coranti, Imanol Agirrezabal, Jose Luis Irizar, Luis Mari Basterra, Iosu Mujika (†), Jabier Gantxegi, Jesus Mari Larrañaga.

Felipe Iñarra
Erretratua: Jesus Mari Larrañaga



**GABON
HAUTAN ERE...**



*Zure
Opari Benda
Bergara*

Barrenkale, 27

*Kapritxo bat
merezi
duzulako*

KANELA
Espalbia 10
20-570 BERGARA
(Gipuzkoa)
Tel. (043) 700183

*antzinako altzariak • altzari errustikoak • etxea jazteko apaingarriak • opariak
muebles antiguos • muebles rústicos • complementos para el hogar • regalos*



ARRASATE ERDIALDEKO MERKATAL
ETA ZERBITZUEN ELKARTEA

*Jai
Loriontsuak*

PASEATUZ EROSTEA ARTE BIHURTU DUGU!!

**HILAREN 22an, SANTO TOMAS FERIA EGUNEAN, DENDAK EGUN OSOAN ZEHAR ZABALIK
IZANGO DIRA. ZATOZ, EGIN EZAZU EROSKETAK ETA OPARI BAT JASOKO DUZU.**



Zubiaga

*1960tik, gaur zuri bitxi eta erlojugintzan
katalogorik zabalena eskaintzeko*

ZUBIAGA

Kale barria, 18
20560 OÑATI
Tfnoa. 716074

bitxitegia

ZUBIAGA

Maalako Errabala,
20500 ARRASATE
Tfnoa. 791925 - Faxa 791488